



Ingurune Digitala aldatuz doa. Egunetik egunera ikusten ditugu berrikuntzak, eta etengabe aldatzen zaigu teknologiarekin dugun harremana. Teknologiak inguratzen gaitu, eta harreman honetan hizkuntza ezinbestekoa da gaur egun. Alor honetan ere euskarak bere bidea egin du, eta askotan esan izan ohi dugun moduan, euskararen osasun digitala ez da txarra, baina aldaketak azkar datoz, eta, euskarak, abiadura horretara egokitzeko gaitasuna behar du. Izan ere, adostasunean oinarritutako Estrategia Digital baten beharra gero eta nabarmenagoa da: Euskara ardatz izango duen Estrategia Digitala.

Giltza-hitzak: Ingurune digitala. Estrategia digitala. IKT. Internet. Euskara. Burujabetza teknologikoa.

1. Sarrera

Azken hilabeteotan asko idatzi eta hitz egin da euskarak Ingurune Digitalean bizi duen egoeraz. Askotan errepikatu dugu euskara osasuntsu dagoela baina bizirik jarraitu nahi badu neurri eta baliabideak behar dituela Ingurune Digitalean tokia ez galtzeko.

2016ko udaberrian Euskaltzaindiak “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” izeneko ekitaldia antolatu zuen Bilbon. Bertan, “Euskara eta Internet: zortzigarren lurraldea konkistatzen” aurkeztu genuen PuntuEUS Fundazioaren izenean eta honakoa¹ adierazten genuen:

“Euskara biziberritzeko erronka berrien inguruko hausnarketa abiatzean, ezin Internet eta komunikazio digitalak alde batera utzi. Andrés Kornai hizkuntzalariak 2013an argitaratutako “Digital language death” ikerketaren arabera munduko hizkuntzen % 5 baino ez da erabiltzen Interneten, eta horrek gainerako % 95a heriotzara kondenatuko du.

XXI. mendeko komunikazioak sarea du ardatz, eta hizkuntza bat bertan egotea ez da nahikoa bere desagertpen digitala ekiditeko. (...) Euskararekiko konpromiso digitala zabaltzea ezinbestekoa da gaur

egun dugun % 17ko erabilera tasa gainditu eta euskararen presentzia sarean indartzeko”.

Handik gutxira aurkeztu zen publikoki Euskararen Aholku Batzordearen IKT azpiatalak landutako “Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat” txostena². Lan garrantzitsua izan zen hau, gure hizkuntzaren garapen digitalerako ezinbesteko ziren gakoak ezartzen zirelako bertan. Txosten horren hitzaurrean honakoa adierazten zen:

“Agerikoa da, beraz, aurrerapauso handiak eta nabarmenak egin dituela euskarak azken urteetan Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) alorrean eta Interneteko esparruan; hala ere, ezin da ahaztu, aurrerantzean hizkuntza bizia izango bada, euskara teknologia berrietan integratzen jarraitzeko ahalegin bateratuak egiten segitzea ezinbestekoa dela”.

Txosten hau hartu zuen oinarri Amaia Ocerinek urtebete beranduago Sarean.eus agerkari digitalean³ euskararen garapen digitalerako baliabide eta azkartasun gehiago eskatzeko:

“Aurrera pausak ematen azkarragoak izan behar garela uste dut, teknologiaren aplikazioa abiadura handiko trena da eta burokrasian denbora preziatua galtzen ez ote gauden galdetzen diot etengabe nire buruari”.

Ingurune digitala aldatuz doa. Egunetik egunera ikusten ditugu berrikuntzak, eta etengabe aldatzen zaigu teknologiarekin dugun harremana. Teknologia inguratzen gaitu, eta harreman honetan hizkuntza ezinbestekoa da gaur egun. Euskarak, bere bidea egin du⁴, eta askotan esan izan ohi dugun moduan, euskararen osasun digitala⁵ ez da txarra, baina aldaketak azkar datoz eta abiadura horretara egokitzeko gaitasuna behar du euskarak.

Egoera hau ez da euskarara mugatzen. Nazioartean “Digital minorisation” kontzeptua hasi da zabaltzen fenomeno hau deskribatzeko, eta islandiera⁶ bezalako hizkuntza nagusien kasuan ere desagertze digitalaz hasi dira hitz egiten.

Eusko Ikaskuntzak antolatutako e5 proiektuaren mintegietan behin eta berriz azaldu den gaia izan da hau. Ezin euskararen etorkizunaz hitz egin ingurune digitala kontuan izan gabe. Hau kontuan izanda, jarraian dator gure ekarpena. Eztabaidarako abiapuntua izatea baino ez du helburu, irakurri, baloratu, eta, euskarak ingurune digitalean presentzia indartsua eta eguneratua izatea ahalbidetuko duen estrategia erreal baten definizioan lagunduko duen oinarria abian jartzea.

2. Zer da ingurune digitala?

Teknologia berriak zahar bilakatu zitzaizkigun, eta IKT terminoa jarri genuen modan ordenagailuekin zerikusia zuen guztia izendatzeko. Hitzek eta akronimoek, ordea, erabileraren arabera hartzen dute esanahia, eta egun, IKT ere txiki gelditu zaigu teknologia gure inguruan duen presentzia adierazteko garaian. Internet ere ez da nabigatzailearen bidez ikusten dugun hori, nonahi aurki dezakegu gaur egun: mugikorrean, joko plataformatan, autoan eta etxeko berogailuan... sarea oso zabala da.

Garai berrien aldaketara egokituz Ingurune Digitala⁷ da Internet eta teknologia adierazteko erabiltzen hasi den terminoa, ingelesezko *Digital Environment* terminoaren pareko. Euskararen Adierazle Sistemaren lan-taldean gaia aztertu ondoren, kontzeptu honentzat honako definizioa landu genuen:

“Pertsonen artean, eta, makinaren eta pertsonen artean komunikazio eta interakziorako erabiltzen diren baliabide digitalek osatzen dute ingurune digitala”.

Etorkizunean gero eta toki gehiagotan ikusiko dugu Ingurune Digitala kontzeptua. Ondorioz, ahantz ditzagun teknologia berri eta IKTak, eta onar dezagun Internet eta komunikazio digitalek gure Ingurune Digitala osatzen dutela.

3. Euskara ingurune digitalean sustatzeko planak

Euskarak Ingurune Digitalean duen presentzia indartzeko plan eta proposamen ugari egin dira azken urteotan. Zoritxarrez, ez dago estrategia bakarra euskararen lurralde osoa kontuan hartuko duena, eta EAEz kanpoko estrategia digitaletan euskara ez da kontuan hartzen. Dena dela, jarraian agertzen dira erreferentzia moduan artikulua hau garatzeko kontuan hartu diren dokumentu nagusiak:

3.1. Euskararen Agenda Estrategikoa

Euskadi 2020. Gobernu Programan dauden 15 plan estrategikoetako bat da Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020⁸, legegintzaldi honetarako hizkuntza politikaren lan-ildoak zehazten dituena; euskararen eta hizkuntza bizikidetzaren eremuan zehaztutako konpromisoen eta ekimenen bilduma da.

Agenda honetan zehaztu diren 9 helburu estrategikoen artean Ingurune Digitala 3. helburuaren azpiatal moduan agertzen da, baina bere eragite eremua sare sozialen erabilerara mugatzen da:

“3. Euskal herritarren euskararen erabilera handitzea eta kalitatea hobetzea.

3.4. Aisialdi-arloan: ingurune digitala (sare sozialetan %19,5etik gora), kirola, kultura edota hedabideak”.

Halaber, agenda honen garapenerako aurreikusitako ekimenen artean, bai jasotzen da Ingurune Digitalari buruzko berariazko puntua:

“2. KONPROMISOA. AISIALDIAN ETA FORMALAK EZ DIREN EREMU FUNTZIONALETAN ZABALDU EUSKARAREN ERABILPENA.

2.3. Ekimena. Interneten eta tresna digitaletan euskarazko edukiak sortzea eta sartzea bultzatu, unibertsitateekin, eta hezkuntza-, kultura-, eta aisialdi-arloko edukiak sortzen dituzten erakundeekin eta pertsonekin lankidetzan”.

3.2. Euskadiko Agenda Digitala

EAE mailan ingurune digitala sustatzeko Eusko Jaurlaritzak 1999. urtetik garatzen duen ekimena da Euskadiko Agenda Digitala. Azkena Euskadiko 2020ko Agenda Digitala, modu laburtuan AD@2020⁹, Eusko Jaurlaritzak Euskadin Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartea egoki sustatzeko diseinatu duen plan estrategikoa da, eta horretarako hainbat neurri traktore eta bultzatzaile antolatu ditu, 2016-2020 epealdian hedatzeko helburuarekin.

Euskararen Agenda Estrategikoan Ingurune Digitalari lehentasuna ematen ez zaionez, beste alderdia aztertu dugu, hau da, Euskadiko Agenda Digitalak euskarari nolako tokia egiten dion ikustea. 4 ardatzek, 11 erronka estrategikok eta ekintza ildo nahiz ekimen zehatz ugarik egituratzen dute agenda hau, baina hemen ere euskarak ez du lehentasunik.

Indarrean dagoen AD@2020 eta aurreko legegintzalditan izandako Agenda Digitalen arteko alderaketa azkar bat eginez gero euskarak gero eta presentzia txikiagoa duela esan daiteke. Hori egiaztatzeko ariketa erraz bat egin: azken hiru legealditako agenda digitalak hartu eta “euskara” hitza bilatu bakoitzean. Hona emaitza:

- Euskadi Informazioaren Gizartean Plana, 2010¹⁰ (EIGP 2.0): 33 aldiz agertzen da “euskara” hitza dokumentuan. Are gehiago, puntu oso bat eskaintzen zitzaion gaiari: “4.3. Euskaraz erabateko esperientzia digitala ahalbidetzeko zerbitzuak”, bertan ekintza zehatzak definituz.
- Euskadiko 2015eko Agenda Digitala¹¹ (AD@15): 14 aldiz agertzen da “euskara” hitza dokumentuan.
- Euskadiko Agenda Digitala 2020 (AD@2020): 8 aldiz baino ez da agertzen “euskara” hitza dokumentuan.

Esanguratsua da ikustea agenda batetik hurrengora euskararen presentzia erdira jaisten dela. Ingurune Digitalak gure gizartean gero eta presentzia handiagoa duen bitartean, eta euskarak alor honetan dituen garapen beharrak kontuan izanik, ikus daiteke Eusko Jaurlaritzaren Agenda Digitalak gero eta garrantzia gutxiago ematen diola gaiari. Azken Agenda Digitalean agertzen diren puntuen artean Euskarazko Wikipedia sustatzea da euskararen garapenerako jasotako helburu ia bakarra. Gainera, Agenda Digitalaren arrakasta neurtzeko ezarritako adierazleen artean, ez dago bat bera ere berariaz euskararen garapenari zuzendua.

Baina lehen aipatutako Euskararen Agenda Estrategikoa 2020 dokumentuan agertzen denez, Kultura, Euskara eta Kirol Batzordeak, 2018ko martxoaren 9an egindako bilkuran onartutako ebazpenen artean honakoa zehazten da:

“23. Eusko Legebiltzarrak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailari eskatzen dio egin dezala bere lana euskararekiko zehar-lerrotasuna kontuan izanik, eta Euskadi 2020 Agenda Digitalak dituen helburuetan eta estrategietan euskara ere kudeatzeko bidea jorratu dezala beste erakunde batzuekin batera. Era berean, eskatzen dio euskarak ingurune digitalean duen presentzia aztertu dezala eta euskararen erabilera sustatzeko helburu nahiz aukerak aztertu eta bultzatu ditzala beste erakunde batzuekin batera”.

Esan bezala, AD@2020 txostenean euskararen presentzia oso txikia da, beraz, bi dokumentuek elkarri erreferentzia egiten badiote ere, adierazitako asmo hori ez da behar bezala gauzatu.

3.3. Euskarazko IKTak, gomendioak herri aginteentzat

2014ko abenduaren 1ean Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak egindako bilkuran EABren osaera, funtzionamendua eta lan-programa aztertu zen. Horrela, 2015/2016 aldian lanean jardungo zuten batzordeak eta haien eginkizun nagusiak zehaztu ziren.

Testuinguru honetan kokatu behar da Euskararen Aholku batzordearen IKT Batzorde-atalaren helburu nagusia: IKTetan eta Interneten euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendioak egitea.

Helburu nagusi hau kontutan hartuz, IKT Batzorde-atal Bereziak 'Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat'¹² dokumentua landu zuen. Batzordeak izandako lanketa prozesu luze baten ondoren, eta lanketa honetan zehar egindako proposamen guztiak banan-banan aztertu ondoren, honako hauek dira IKT Batzorde-atal Bereziak herri aginteei egiten dizkien 12 gomendioak, batzorde atal bereziak erabakitako lehentasunen arabera hurrenkeran:

1. Euskarazko Wikipedia sustatu.
2. Estrategikoak diren enpresekin etengabeko harremana eta elkarlanerako bideak sustatu.
3. Eduki propioak sortu eta etengabe edo maiz berritzen diren kontuan izan diru-laguntzak ematean.
4. Administrazioaren diru-laguntzaz sortutako edukien Copyleft politika arautu, lizentzia libreak bultzatu.
5. Euskarazko IKTen inguruko datuak lortu (erabilera, sartzea...).
6. Ikus-entzunezkoen alorrean eragin.
7. Bideo-jokoen alorrean eragin.
8. Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak eta bestelakoak identifikatu eta ahalik eta azkarren itzuli/lokalizatu.
9. Zaintza teknologikoa ziurtatu.
10. Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu eta bultzatu.
11. Publikoa den edukia sareratu.

12. Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berariazko plana garatu.

Dokumentuaren izenak dioten bezala, lanaren helburua da IKTetan eta Interneten euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendioak egitea. Euskararen Aholku Batzordeak bere egin zuen dokumentu hau, aho batez, 2016ko maiatzaren 11n eginiko Osoko bilkuran.

Hau da orain arte euskararentzat landu den Estrategia Digitalik zehatzena jasotzen duen dokumentua, baina bere izenburuak adierazten duen moduan gomendioak egitera mugatzen da, hau da, hemen jasotako helburuek ez dute inongo konpromiso edo betetze-mailarik. Ondorioz, txosten honetan jasotako betetze-maila bermatzeko modurik ez dagoela esan daiteke.

3.4. Euskara aro digitalean Liburu Zuria

Europako Batzordeak sortutako META-NET Bikaintasun Sareak gaur egungo hizkuntza-baliabideei eta –teknologiei buruzko analisi bat bideratu zuen 2012. urtean landutako liburu zurien bilduman. Analisi hori Europako 23 hizkuntza ofizialentzako eta Europako beste zenbait nazio– eta eskualde-hizkuntza garrantzitsurentzako gauzatu zen. Analiaren ondorio gisa, ondorioztatu zen ikerketa-hutsune esanguratsuak daudela hizkuntza bakoitzerako.

Landutako liburu zurien artean bat euskararena izan zen, 2012an argitaratua, eta, Elhuyar, EHU, Eusko Jaurlaritzaren eta IKER zentroko adituek lankidetzan egina: “The Basque Language in the Digital Age / Euskara Aro Digitalean”¹³.

Liburu zuri hau hizkuntza-teknologiei eta haien potentzialei buruzko jakintza sustatzea helburu duen bildumaren atal bat da, hezitzaileei, kazetariei, politikariei eta hizkuntza-komunitateei zuzendua.

Euskarari dagokionez, “babes zatikatua” duela ondorioztatzen zuen liburu honek, eta, hortaz, arrisku handiko hizkuntzen multzoan jasotzen da. Euskararen Liburu Zurian honako ondorioa aurkezten da laburpen exekutiboan¹⁴:

“Hizkuntza-teknologiaren eremuan, hainbat produktu, teknologia eta baliabide daude euskararako. Badira aplikazio-tresnak hizketa sintetizatuzko, hizketa ezagutzeko nahiz ortografia zuzentzeko; badira, halaber, itzulpen automatikoko aplikazio batzuk ere,

espainieratik euskarara batez ere. Liburu zuri bilduma honetan ageri denez, ikaragarritzko alde dago Europako estatu kideen hizkuntza-baliabideen inbentarioen artean eta ikerketa-egoeren artean. Ondoriorik nabarmenenetariko bat da ikerketa sustatu beharra duten EBko hizkuntzetariko bat dela euskara, hizkuntza-teknologietan oinarritutako aplikazio benetan eraginkorrak eta egunero jardunean erabiltzeko modukoak garatuko badira. Euskararako kalitate handiko hizkuntza teknologien garapena oso larria eta garrantzitsua da euskara sustatzeko”.

3.5. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

Hizkuntza berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapena bermatzeko dokumentua da Protokoloa¹⁵. Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak gidatutako proiektua izan da eta Gizarte eragileen proposamenekin eta Batzorde Zientifiko baten aholkuekin osatu da. Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuak egon daitezten hartu beharreko gutxieneko neurriak asotzen ditu. Horren ondorioak Donostian, 2016ko abenduan aurkeztu ziren Europako Kultur Hiriburutzaren baitan.

Protokoloan zazpi lan-eremu zehaztu dira, horietatik bat “Hedabideak eta teknologia berriak” gaiari zuzenduta. Eremu honetan bederatzire neurri zehazten dira hizkuntza eskubideak bermatu daitezten.

3.6. Espainiako gobernuak: Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje

Espainiako Gobernuak 2015. urtean onartutako *Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje*¹⁶ proiektuaren helburua hizkuntza teknologien alorra indartzea da. Planean bertan honela zehazten da bere helburua:

“Impulsar el sector de procesamiento de lenguaje natural y traducción automática por medio del presente plan específico, con un alcance de 5 años y un ámbito geográfico e institucional que se amplía a las distintas Comunidades Autónomas y a las lenguas cooficiales”.

Plan honen epealdia 2016-2020 bitartekoa da, eta helburuan adierazten den moduan, euskarari ere eragiten dio bere garapenak.

3.7. Europako Batasuna: Language equality in the digital age

Europako Batasunak hainbat plan izan ditu hizkuntza teknologien alorrean I+G+b proiektuak bideratzeko azken urteotan. Hauen artean, 2017. urtearen hasieran aurkeztutako *Language equality in the digital age - Towards a Human Language Project*¹⁷ txostena azpimarratzekoa da. Bertan Europak bizi duen eleaniztasunak suposatzen duen arazoa aurkezten da, eta Hizkuntza Teknologia hori garatzeko suposatzen duen aukera.

“The EU is a unique endeavour involving more than 500 million citizens sharing about 80 different languages, and while multilingualism is a key feature, it is also one of the most substantial challenges for the creation of a truly integrated EU. Language barriers have a profound effect on cross-border public services, on fostering a common European identity, on workers’ mobility, and on cross-border e-commerce and trade, in the context of a Digital Single Market. The emergence of new technological approaches, based on increased computational power and access to sizeable amounts of data, are making Human Language Technologies (HLT) a real solution to overcoming language barriers. However, several challenges, such as market fragmentation and unsubstantial and uncoordinated funding strategies, are hindering the European HLT community, including research and industry”.

4. Garapenerako strategiaren oinarria

Ikus daiteken moduan, landu dira planak euskara ingurune digitalean garatzeko, eta landu dira strategiak ingurune digitalak Euskal Herrian garapena izan dezan, euskara gehiago edo gutxiago kontuan hartuz. Badaude ideiak eta asmoak, eta definitu dira egoera neurtzeko tresnak ere, baina esan daiteke ez dagoela euskara ardatz hartzen duen estrategia orokor bateratu bat. Oro har, orain arteko strategiaren azterketa eginda honako ajeak nabarmendu daitezke:

- **Koherentzia falta.** Plan desberdinak ditugu, askotan erakunde bereko sail desberdinek landutakoak, baina elkarren arteko lotura eta erreferentziak badauden arren, askotan ez dago koherentziarik plan baten eta bestearen artean.

- **Gidaritza bateratua falta da.** Aurreko puntuan adierazi bezala, euskararen estrategia digitala garatuko duen gidaritza bateraturik ez dago, hainbat sail eta lantalde daude inplikaturik prozesuan, guztiak Eusko Jaurlaritzaren menpe, baina ez dago aginte transbersalerako gaitasuna duen entitaterik. Adibide moduan, Hizkuntza Politika HPSren ardurapekoa izanik, eta Agenda Digitalaren ardurua SPRIren eskutan egonik, bien arteko lankidetzak egongo den arren ez dago gidaritza bakarrik gaiaren inguruan. Euskararen Aholku Batzordeak landutako txostenaren kasuan, gomendio hutsak izatera mugatzen da, eta horrek bere garapenean ondorio negatiboak ditu batzorde berak egindako balorazioan ikusi den moduan.
- **Lurraldetasun ikuspegi mugatua.** Euskararen ofizialtasuna desberdina da euskararen lurralde bakoitzean, eta, ondorioz, euskararentzat landu eta garatu beharreko planak ez dira berdinak lurralde guztietan. Zentzu horretan eredu ona da .EUS domeinuaren kasuan garatutako estrategia, lurraldetasuna alde batera utziz .EUSen garapena euskararen komunitate osoan aurreikusi delako. Ingurune digitalaren kasuan ere planteamendu egokiena litzateke hori euskararentzat.
- **Transmisio falta.** Euskarak ingurune digitalean izan beharreko garapena bideratzeko gizarte eta eragileen kontzientziazioan eragiteko beharra dago, eskaintzaz gain erabilera ere sustatuz.

Ondorioz, euskararen estrategia digitala lantzeko garaian, kontuan hartu beharreko oinarritzko printzipio batzuk honakoak lirateke:

- Euskararen lurralde osoa hartu behar du kontuan.
- Zeharkakotasuna: ingurune digital osoari eragitea.
- Gidaritza. Estrategia digitala diseinatu eta garatuko duen erakundeak erabakitze gaitasuna izan behar du, estrategia garatu eta aplikatzeko, gomendioetatik harago.
- Baliabide tekniko eta ekonomikoak esleitu behar zaizkio.
- Sektore eta gizartearekiko lotura izan behar du, eta transmisioa sustatu.

5. Euskararen estrategia digitalaren gakoak

Euskarak ingurune digitalean bizi duen egoera kontuan hartuta, adostasunean oinarritutako Estrategia Digital baten beharra dago. Euskara ardatz izango duen Estrategia Digitala, honako gakoetan oinarritu beharko litzateke gutxienez:

- Bitartekotza
- Burujabetza teknologikoa
- Edukien garapena
- Sustapena
- Gidaritza

Jarraian aurkezten da hauetako bakoitza modu zabalagoan:

5.1. Bitartekotza

Ingurune digitalak gure egunerokoan duen eragina hainbestekoa den garai hauetan, ezinbestekoa dugu estrategia eta politika egokiak definitzea gurea bezalako herri eta hizkuntza batek ingurune digitalean dagokion tokia izatea nahi badugu. Hau egiteko, globalizatutako sektore batean eragiteko urratsak eman behar dira, sektorearen jarraibideak ezartzen dituzten enpresa erraldoiekin negoziatu eta bitartekotza lanak modu bateratuan egiteko¹⁸.

Gaur egun Facebook, Google edo Apple bezalako enpresen urteko fakturazio bolumena munduko estatu askoren barne produktu gordina baino handiagoa da. Gertuko adibide bat: Googlek esaterako 73.000 milioi dolar fakturatu zituen 2015ean, EAEk urte berean izandako Barne Produktu Gordina baino 8.000 milioi dolar gehiago.

Hau kontuan hartuta, gero eta herrialde gehiago dira figura bereziak sortzen ari direnak bitartekotza lanak egin eta erraldoien estrategia digitalean eragin asmoz. Adibide esanguratsua Danimarka da, bere estrategia digitala definitzeko garaian termino berria ere izendatu duena: *TechPlomacy*, eta hau garatu ahal izateko Enbaxadore Digitalaren figura sortu du, Ingurune Digitaleko erraldoiekin bitartekotza lanak egitea helburu.

*TechPlomacy*¹⁹ terminoa honela definitzen dute Danimarkako Enbaxada Digitalean:

“TechPlomacy aims at reshaping the way we ‘think’ and ‘do’ diplomacy in the 21st Century. It is about creating new avenues for dialogue and engaging strategically

with technology hubs - not only as a tool but as a key foreign policy priority”.

Danimarkako enbaxadore digitalak, diplomatiko izaera osoa du eta bere funtzioa ingurune digitala kontrolatzen duten enpresa erraldoiekin negoziatzea, eta gobernua estrategia digitalaren alorrean aholkatzea da.

Baina, esan bezala, Danimarkaren kasua ez da bakarra. Kataluniak ere 2018an eratu berri duen gobernuan Politika Digitaleko Saila²⁰ sortu du, Politika Digitaletako Kontseilaria izendatuz estrategia osoaren arduradun moduan.

Danimarkarentzat garrantzitsua bada aurrez aurre Interneteko erraldioen estrategia digitalean eragingo duen bitartekari bat izendatzea, euskara eta Euskal Herriarentzat ezinbestekoa da eragile nagusiekiko interlokuzioa bateratzea, sektore desberdinetako eskariak bideratuz eta solaskide bakarraren bidez kudeatuz.

Bitartekotza egingo duen entitate bat behar du euskarak, bere estrategia digitala garatuko bada, baina bitartekotzaz hitz egitean ez ditugu soilik Google eta Facebook bezalako erraldoiak izan behar kontuan. Gertuko eragile eta sektorearekin ere izan behar da harremana, Euskal Herrian garatzen den teknologiak euskara kontuan izan dezan, euskararen lurraldean euskararentzat teknologia gara dezagun, eta plan berrietan euskarak bere tokia izan dezan.

5.2. Burujabetza teknologikoa

Aurreko puntuan adierazi bezala, euskara Ingurune Digitalean garatuko bada garapen hau ez da mundu globalizatuan lehiatzen diren erraldioen eskutik iritsiko. Meta-net sareak landutako “Euskara aro digitalean” liburu zurian ikusi dugun moduan, euskararentzat garatutako teknologia gehiena Euskal Herrian garatu da, bertako eragile, enpresa, unibertsitate eta ikerketa-zentroen eskutik. Euskarak Burujabetza teknologikoa behar du, estrategia garbi bat jarraituko duen garapen estrategia, bide-orri propioa eta baliabide tekniko eta ekonomikoz hornitua.

Gorka Juliok honela definitzen zuen burujabetza teknologikoa Berrian²¹:

“Zertaz ari gara burujabetza teknologikoaz ari garenean? Elikadura burujabetzaren alorrean, Via Campesinak erabilitako definizioa oinarri har daiteke:

«Burujabetza teknologikoa herriek, komunitateek eta herrialdeek, nork bere ezaugarrien arabera modu ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak erabiliz, beren sistema eragile, software, hardware, sare eta azpiegitura politika propioak definitzeko eskubidea dute. Teknologia eduki eta ekoizteko eskubidea barne hartzen du, alegia, jende guztiak daukala teknologia segurua, bizigarri eta kulturalki egokia eta teknologia ekoizteko baliabideak izateko eskubidea, eta nork bere burua eta bere gizartea modu iraunkorrean eustekoa. Teknologia burujabetzak esan nahi du herriek eta komunitateek nagusitasuna dutela merkataritza auzien gainetik teknologia eta teknologien ekoizpena kontrolatzeko»”.

Burujabetza teknologikoaz hitz egitean, oso kontuan hartu behar da Hizkuntza Teknologien arloa. Euskal Herria aitzindaria izan da alor honetan, eta euskararentzat goi-mailako teknologia garatu da unibertsitate zein enpresa eta ikerketa-zentroetan. EHUko IXA Taldeak 2018ko apirilaren 16an Eusko Legebiltzarreko Kultura, euskara eta kirol batzordean egindako agerraldian²² “Hizkuntza-teknologiaren abagunea”²³ izeneko txostena aurkeztu zuen, eta bertan honakoa azpimarratzen dute:

“Kalitate handiko hizkuntza-teknologia garatzea ezinbestekoa eta presazkoa da euskararen kasuan. Ezinbestekoa, hizkuntzaren beraren irautea bermatu nahi bada; eta presazkoa, inondik ere, teknologia hauen bilakabidea eta berritze-abiadura ikusita atzean geratzeko arriskua benetakoa baita. Euskal komunitatearen ikuspegitik, bada, helburu polita –eta egingarria– litzateke epe laburrean –edo ertainean– teknologia horiek guztiak aurreko atalean aipatutako egoera ertain edo on horietara ekartzea.

Teknologia horiek bultzatzea ohikoa da gure inguruko administrazioetan. Laguntzak bi arlotan bana daitezke, lotuta badaude ere: ikerkuntza eta garapena, batetik, eta hizkuntzen babesa, bestetik. Euskararen kasuan biak uztar daitezkeelakoan gaude”.

Txosten horretan bertan 6 garapen-ardatzetan oinarritutako proposamen bat ere aurkeztu zuten Euskara Hizkuntza Teknologien arloan sustatzeko:

- Hizkuntza-baliabide eta -tresnen garapena.
- Hizkuntza-tresnen integrazioa eta hodei-konputazioa.
- Itzulpen automatikoa.
- Industria eta administrazioeko domeinu espezializatueterako proiektu transbertsalak.
- Ikerkuntza eta formazio espezializatua.
- Nazioarteratzea.

Eta hau egin ahal izateko hiru neurri zehatz proposatzen dira bertan:

- Erreferentzia-zentro bat sortzea.
- EJRren hurrengo zientzia-planean arlo hau lerro nagusien artean sartzea
- Erosketa publiko berritzailearen bidez hainbat Itsasargi proiektu indartsu abiatzea.

Garbi izan behar dugu Euskarak behar duen teknologia ez dela atzerrian garatuko, interes ekonomiko urria pizten duelako. Baina gure Estrategia Digitalean onartzen badugu euskarak teknologia behar duela, ezinbestekoa dugu Burujabetza teknologikoaren bidea jorratzea, horretarako bide-orri propioa garatuz eta profesional euskaldunak trebatuz.

5.3. Edukien garapena

PuntuEUS Behatokiaren²⁴ arabera 2017. urtean % 16koa izan da euskararen erabilera Interneten, hau da, Euskal Herriko webgune guztiak aintzat hartuz gero, euskarazko edukia duten webguneak 26.663 dira, guztien % 16 bataz beste. Kaleko erabilera baino zerbait gehiago, baina ez asko, euskararen kale erabilera % 12,6koa baita azken neurketaren²⁵ arabera. Klean euskararentzat biziberritze prozesuak aktibatzen diren moduan aktibatu behar ditugu Interneten ere. Euskara eraman behar dugu ingurune digitalera esparru guztietan, testua eta baita ikus-entzunezkoak ere, eta horretarako estrategia eta plataforma propioak behar ditugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz²⁶ ekimenaren baitan “2DEO” euskarazko ikus-entzunezkoen laborategia jarri du abian. Bertan honakoa zehazten da:

“Azkarren aldatzen ari den esparruetariko bat, ikus-entzunezko edukiena da. Ikus-entzunezko kontsumoa gero eta handiagoa da, horretarako hainbat formatu eta kanal erabiltzen direlarik. Esparru honetan, euskarazko sormena ez da beste eremu batzuetan

bezain azkar zabaltzen, irakaskuntza kasu. Etorkizuna Eraikizek nerabeen artean eginiko ikerketa batek, gazteek gelatik atera bezain pronto, hizkuntzaz aldatzen dutela jakinarazi du”.

Gazteek edukiak euskaraz behar dituzte, hezkuntzan eta aisialdian. Wikipedia euskaraz izatea hezkuntzarako ezinbesteko tresna den moduan, euskarazko ikus-entzunezko edukiak eta bideo-jokoak behar ditugu sarean aisialdirako, eta horretarako plataforma eta edukien sorkuntza sustatu behar da. Euskararen Aholku Batzordearen “Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat” txostenean lehentasunezko puntuen artean bigarrena hauxe agertzen da:

2. Interneten euskarazko edukiak sustatu (baita euskara ikasteko edukiak ere):

1. Euskarazko Wikipedia sustatu.
- 2.a. Ikus-entzunezko alorrean eragin.
- 2.b. Bideo-jokoen alorrean eragin.
3. Publikoa den edukia sareratu (bereziki garrantzitsua EITBren edukia).

Sorkuntza garestia da, eta hau bideragarri egiteko ezinbestekoa da berariazko diru-laguntza larroak indartu eta euskarazko marketin digitalaren²⁷ aldeko apustua egitea, sarean euskarazko edukiak argitaratzea sozialki eta ekonomikoki errentagarria izan dadin.

5.4. Sustapena

Euskarazko Ingurune Digitalaren strategiak bi alderdiak hartu behar ditu kontuan: eskaintza eta eskaria. Ez du ezertarako balio euskarazko edukiak argitaratzea euskaraz kontsumitzeko ohiturak indartzen ez badira. Esaterako, webgune askok erabiltzailearen nabigazio-hizkuntzan erakusten dute edukia, baina Euskal Herriko erabiltzaileen % 3k dauka nabigazio-hizkuntza moduan euskara. Ondorioz, edukia erdaraz jasotzen dute erabiltzaile gehienek modu lehenetsian. Mugikorren kasuan egoera are okerragoa da: *Interneten ere Lehen Hitza euskaraz*²⁸ kanpainaren baitan aztertutako ia 3.000 gailutatik % 63 euskaraz jar daiteke, baina erabiltzaileen gehiengo handienak erdaraz erabiltzen ditu.

Merkatuaren logikari jarraituta, eskaria eta eskaintzaren arteko lotura²⁹ erabatekoa da. Lorea Arakistainek Sarean.eus³⁰-en honakoa adierazten zuen:

“Mugikorraren hizkuntza eta nabigazio-hizkuntza ez dira eremu pribatuak: bisitatzen dituzun webguneek, deskargatzen dituzun aplikazioek eta hauen atzean dauden pertsonak badakite zein hizkuntzatan daukazun zure gailuak, guzti-guztiek. Eta, datu horietan oinarrituta eta eskari-eskaintzaren logikari jarraituta hartzen dituzte erabakiak”.

Hau guztia kontuan hartuta, ezinbestekoa da ezagutza eta kontzientziazioa lantzea, erabileraren alderdian eraginez. Euskarazko edukien eskaintza zabaldu eta bideragarri egingo duen erabiltzaile komunitate aktiboa garatu behar dugu.

5.5. Gidaritza

Orain arte esandako ezer ez da berria. Erreferentzian adierazi den moduan hemen jasotako kontzeptu guztiak hainbat txosten eta artikulutan jaso dira azken urteotan, alor honetan ari diren erakunde, lan-talde eta pertsonak garatua. Baina euskarak behar duen estrategia digitala arrakastaz garatzea espero badugu ezinbestekoa da adostutako gidaritza bateratua izatea. Orain arteko txosten eta estrategiak gomendioetara mugatzen ziren, edo gaiaren ardura erakunde desberdinen artean banatzen ziren.

Horregatik, euskararen estrategia digitalaren zutoinetako bat honen diseinu, garapen eta eguneratzeaz arduratuko den entitate legitimatu baten izendapena izango da, beharrezko neurriak adostasunez ezarri ahal izateko.

Erakunde honek erabakiak hartu eta aplikatzeko gaitasuna izateaz gain, bitarteko tekniko eta ekonomikoak kudeatzea ezinbestekoa da.

6. Ondorioak

Laburtuz, honako gakoak azpimarratuko genituzke:

- Euskara erdigunean kokatuko duen Estrategia Digital berritzailea behar dugu, euskararen garapen digitalerako bide-orria ezarriko duena.
- Estrategia Digitalaren Gidaritzaz arduratuko den entitate legitimatua adostu behar da, baliabide tekniko eta ekonomiko hornituko dena, eta aginterako gaitasuna izango duena.

- Euskararentzat Hizkuntza Teknologiak garatuko dituen erreferentzia-zentro baten sorrera behar da.
- Eragile guztien inplikazioa ezinbestekoa da prozesuan: Administrazioa, Unibertsitatea, ikerketa-zentroak, enpresak eta gizartea orohar.

Oharrak

1. Euskara eta Internet: zortzigarren lurraldea konkistatzen. Josu Waliño. Euskaltzaindia, Euskera agerkaria. 2016, 61. <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/80887.pdf>
2. Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat. Euskararen Aholku Batzordea. Eusko Jaurlaritza, 2016. <https://labur.eus/gomendioak>
3. Euskarazko IKTak: aurrera edo aurrera joateko unea da. Amaia Ocerin. Sarean.eus, 2017/04/06. <https://www.sarean.eus/euskarazko-iktak-aurrera-edo-aurrera-joateko-unea-da/>
4. Gailurra beti dago gorago. Josu Waliño. Sarean.eus, 2016/05/27. <https://www.sarean.eus/gailurra-beti-dago-gorago/>
5. PuntuEUS Behatokia. PuntuEUS Fundazioa. <https://www.domeinuak.eus/eu/behatokia/>
6. Icelandic language battles threat of 'digital extinction'. Jon Henley. The Guardian, 2018/02/26. <https://www.theguardian.com/world/2018/feb/26/icelandic-language-battles-threat-of-digital-extinction>
7. Zergatik Ingurune Digitala? Josu Waliño. Sarean.eus, 2017/03/14. <https://www.sarean.eus/zergatik-ingurune-digitala/>
8. Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020. Eusko Jaurlaritza. <http://www.euskara.euskadi.eus/informazioa/euskararen-agenda-estrategikoa/r59-738/eu/>
9. Euskadiko Agenda Digitala 2020. Eusko Jaurlaritza, 2016. <https://labur.eus/AD2020>
10. Euskadi Informazioaren Gizartean Plana 2010. Eusko Jaurlaritza, 2005. <https://labur.eus/EIGP2>
11. Euskadiko 2015eko Agenda Digitala. Eusko Jaurlaritza, 2011. <https://labur.eus/AD15>
12. Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat. Euskararen Aholku Batzordea. Eusko Jaurlaritza, 2016. <https://labur.eus/gomendioak>
13. The Basque language in the digital age / Euskara aro digitalean. METANET White Paper Series, 2012. Georg Rehm, Hans Uszkoreit (editors). Springer. <http://www.meta-net.eu/whitepapers/volumes/basque>
14. Euskara aro digitalean, laburpen exekutiboa. META-NET White Paper Series, 2012. Georg Rehm, Hans Uszkoreit (editors). Springer. <http://www.meta-net.eu/whitepapers/volumes/basque-executive-summary-eu>
15. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Kontseilua, 2016. <http://protokoloa.eus/>
16. Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje. Espainiako Gobernua, 2015. <http://www.agendadigital.gob.es/tecnologias-lenguaje/Paginas/plan-impulso-tecnologias-lenguaje.aspx>
17. Language equality in the digital age - Towards a Human Language Project. <https://labur.eus/ormkC>
18. Euskarak enbaxadore digitala behar du. Josu Waliño. Sarean.eus, 2017/06/22. <https://www.sarean.eus/euskarak-enbaxadore-digitala-behar-du/>
19. TechPlomacy. Office of the Tech Ambassador. <http://techamb.um.dk/en/Techplomacy/>
20. Departament de Polítiques Digitals i Administració Pública. <https://labur.eus/poldigi>
21. Burujabetza teknologikoa. Gorka Julio. Berria, 2018/03/10. https://www.berria.eus/paperekoa/2392/035/002/2018-03-10/burujabetza_teknologikoa.htm
22. Eusko Legebiltzarra: <https://labur.eus/aMNjV>
23. Hizkuntza-teknologiaren abagunea. IXA Taldea, 2017/10/10. <http://www.legebiltzarra.eus/irud/11/00/009531.pdf>
24. PuntuEUS Behatokia 2017. PuntuEUS Fundazioa. <https://www.domeinuak.eus/eu/behatokia>
25. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016. Soziolinguistika Klusterra. <http://www.soziolinguistika.eus/kaleneurketaeh>
26. Etorkizuna Eraikiz. Euskarazko ekus-entzunezko edukiak. Gipuzkoako Foru Aldundia 2018. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/etorkizunaeraikiz/proiektuak/euskarazko-ikus-entzunezko-edukiak>
27. Googlek euskara baztertzen du, gero eta gehiago. Lorea Arakistain. Sarean.eus, 2018/02/05. <https://www.sarean.eus/googlek-euskara-baztertzen-du-gero-eta-gehiago/>
28. Interneten ere Lehen Hitza Euskaraz. PuntuEUS Fundazioa, Kontseilua, Ikastolen Elkartea eta CodeSyntax, 2017-2018. <https://www.lehenhitza.eus/mugikorrak/>
29. Minutu bat euskaraz Interneten. Josu Waliño. Sarean.eus, 2017/10/02. <https://www.sarean.eus/minutu-bat-euskaraz-interneten/>
30. Lehen Hitza ohiko galderak. Lorea Arakistain. Sarean.eus, 2017/05/29. <https://www.sarean.eus/lehen-hitza-ohiko-galderak/>